

**ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO  
DOKUMENTUAK**

Berrik. 07  
Indarrean sartu den eguna :  
2022/06/30  
Orr. : 1 / 2

**Dokumentu hauek aurkeztu behar dituzu, jatorrizkoak eta indarrean:**

**DERRIGORREZKO DOKUMENTUAK:**

	Prestazioaren titularra	Bizikidetz- unitateko kide guztiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Nortasuna egiaztatzen duen dokumentua:</b> Espaniarrak: Nortasun agiri nazionala (NAN) Atzerritarrek: Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) edo pasaportea</li> </ul>	✓	✓
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Errola-ziurtagiri historiko eta kolektiboa:</b> eskatzailea bizi izan den bizilekuak eta egungo bizilekuan kide guztiak bizi direla egiaztatzen duena. (Bakarrik Lanbidek elkarrengarritasunagatik dagokion erroldan sartzeko aukerarik ez badu). Lanbidek kontsulta ditzakeen udalerrien zerrenda <a href="https://nisa.eus">NISAE - Elkarrengarritasungo zerbitzuen katalogoa (izenpe.eus)</a> orrian dago eguneratuta.</li> </ul>	✓	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Eskubide ekonomikoak baliatzeko betebeharra:</b> Lanbideren ERE-DBE-026 eredia sinatuta, betebeharraren berri jasotzen duena.</li> </ul>	✓	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Diru-sarreraren eta ondasunen erantzukizunpeko adierazpena.</b> Lanbideren ERE-DBE-0004 eredia sinatuta.</li> </ul>	✓	
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Bankuko dokumentuak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestazioaren helbideratzea: Lanbideren ERE-DBE-030 eredia, bankuak sinatuta eta zigilatuta.</li> <li>- Titularrak diren banku-kontu guztien egoera jasotzen duen ziurtagiria. Lanbideren ERE-DBE-003 eredia, finantza-erakundeak beteta.</li> <li>- Kontu guztien azken hilabeteko banku mugimenduen laburpena.</li> </ul> </li> </ul>	✓ ✓ ✓	✓ ✓ ✓

**SOILIK EGOERA HAUETAKOREN BATEAN BADAGO:**

<p><u>Familia arteko gaiak: senar-emazteak, izatezko bikoteak, ardurapeko adingabetuak eta desgaituak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Erregistro Zibilaren edo Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria</b>, egoera zibila egiaztatzen duena (Lanbidek hala eskatzen dionean). Atzerriko eskatzaileak: 6 hilabeteko epean enbaxadan/konsulatuan lortutako ziurtagiria aurkeztu beharko du.</li> <li>▪ <b>Familia-liburua</b>, Erregistro Zibilaren ziurtagiria edo, hala badagokio, zaintza eta jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duten agiriak.</li> <li>▪ <b>Desgaitasun-ziurtagiria:</b> desgaitasuna duten titularrak edo beren kargura % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna edo II. graduko 1. mailako edo gehiagoko mendekotasun-kalifikazioa duten pertsona helduak dituzten titularrak.</li> <li>▪ <b>Ikasketen matrikularen egiaztatzea</b>, BUn ikasten ari den 23 urtetik beherakorik badago.</li> </ul>	✓	✓
<p><u>Dibortzioak, banantzeak, mantenu-pentsioa erreklamatzeko:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Epai judiziala</b>, banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasunaren kasuan; eta inskripzioa ezeztatu dela egiaztatzen duen erregistro-ziurtagiria, izatezko bikotea hausten bada. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oraindik izapidetzen ari bada, banantze- edo dibortzio-demandaren kopia. Edo, bestela, banantze-izapideak hasteko doako justiziaren eskaeraren kopia (hasieran hori nahikoa da, gero prozesu judizialean egindako aurrerapenak justifikatu beharko ditu).</li> </ul> </li> <li>▪ Seme-alabak badituzte elkarrekin: mantenu-pentsioa ezartzen duen <b>hitzaurre arautzailea</b>. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oraindik izapidetzen ari bada, hasieran nahikoa da doako justizia eskatzeko agiria. Ondoren, prozesu judizialean egindako aurrerapenak justifikatu beharko dira.</li> <li>- Pentsioa ordaintzen ez bada: ez ordaintzeagatik demanda</li> </ul> </li> <li>▪ Seme-alabei mantenu-pentsioa ordaindu behar bazaie: <b>pentsioa ordaindu edo jaso izanaren egiaztatzea</b>.</li> </ul>	✓	✓

**ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO  
DOKUMENTUAK**

Berrik. 07  
Indarrean sartu den eguna :  
2022/06/30  
Orr. : 2 / 2

Genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak (hauetakoren bat):

✓ ✓

- Biktimatzat aitortzen duen **epai judiziala**.
- **Babes agindua edo kautela neurriak**, horrelakorik badago.
- Babestutako biktimaren **egiaztagutuna**, zigor-arloko epaitegiek emana.
- **Ministerio fiskalaren txostena**, egoera hori egiaztatzen duena.
- Administrazio publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako **gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo harrera-zerbitzuen txostena**.

Babesa edo baldintza berezia:

✓ ✓

- **Eskatzailea errefuxiatua edo aberrigabea bada, edo babes subsidiariorako eskubidea badu**: egoera hori egiaztatzen duen agiria eta, izapidetzen ari bada, eskaera izapidetzeko onartu zuen ebazpena.
- **Erabateko umezurtz-egoeran edo parekoan dauden 18 urtetik gorako eta 23 urtetik beherako pertsonak**: gurasoen heriotza-ziurtagiriak edota, hala badagokio, egoera hori egiaztatzen duten beharrezko agiriak.

Baliabide ekonomikoak eta etekinak:

✓ ✓

- **Besteren konturako langileak**: hileko azken nominaren fotokopia.
- **Beren konturako langileak** (autonomoak): aurreko urteko PFEZren aitortpena (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ogasunetako datuak eskuratzen ditu)\*. Halakorik ezean, azken 3 hilabeteetako hileko batez besteko diru-sarrera garbien zinpeko aitortpena.
- **Edozein modalitatetako alokatzetik eratorritako diru-sarrerak**: alokairu-kontratua eta kobratu izanaren ziurtagiria.

Etxebizitza:

✓

- **Errentamendu-kontratua** eta, hala badagokio, azpierreantamendu-kontratua. (Eredu orientagarriak Lanbideren webgunean).
- **Fidantza gordailuaren frogagiria**: Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen du. Betebehar horretatik salbuetsita daude honako kasu hauek: logelen errentamendu-kontratuak, azpierreantamendu-kontratuak, 2015eko irailaren 26aren aurretik izenpeturiko kontratuak eta baterako errentamendu kontratuak, baldin eta ordaindu beharrek hileko prezioa errentari bakoitzak bere aldetik ezartzen badu.
- **Premia larriagatik harreraren hartzea**: harreraren hartzen duenaren zinpeko aitortpena. Lanbideko ERE-DBE-006 eredua.

Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO):

✓

- **Kontratua eta ordainketaren frogagiria**. Etxebizitzako prestazio osagarria onartu ondoren, sei hilean behin justifikatu behar da alokairua ordaindu dela. Eredu orientagarria, Lanbideren ERE-DBE-012.
- **Etxebiden izena emanda egotea**. Salbuespena: etxebizitza berean 10 urte baino gehiago bizi izan direla egiaztatzen duten 65 urtetik gorako pertsonak, eta egoitza-baimenik ez duten eta atzerriko nazionalitatea dutenak.

\* Jakinarazten dizugu Lanbidek zuzenean kontsultatuko dituela honakoei buruzko datuak: PFEZ, higiezinak, banku-kontuak, ondarea, nomina-ordaintzaileak eta EJZ. Datu horiek EAEko foru-ogasunak eskaintako zerbitzu ekarerragingarrien bidez eskuratuko dira. Lanbidek kontsulta hori egitearekin ados ez bazaude, zuzenean aurkeztu behar duzue alderdi horiei buruzko dokumentazioa.

Lanbideren ereduak [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) webgunetik deskargatu daitezke.

Atzerrian emandako eta Espainian baliarazi nahi diren dokumentuak, behar bezala legeztatuta egon behar dira:

- Hagako Hitzarmena sinatu duen estatua: Jatorrizko herrialdean emandako dokumentua bada, Hagako apostillaren zigilua eduki behar du, jatorrizko estatuko agintaritzaren eskudunak jarrita. Jatorrizko herrialdeak Espainian duen kontsulatua edo enbaxadan emandako dokumentua bada, Espainiako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren legezkatzen atalak legeztatuta behar du (General Pardiñas 55, Madril). Bi kasuetan, itzulpen ofiziala aurkeztu behar da baliozkoak izan daitezkeen.
- Hagako Hitzarmena sinatu ez duen estatua: Jatorrizko herrialdean emandako dokumentua bada, Espainiak jatorrizko herrialdean duen enbaxada edo kontsulatuak bide diplomatikoa erabiliz legeztatuta behar du. Jatorrizko herrialdeak Espainian duen kontsulatua edo enbaxadan emandako dokumentua bada, Espainiako Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren legezkatzen atalak legeztatuta behar du (General Pardiñas 55, Madril). Bi kasuetan, itzulpen ofiziala aurkeztu behar da baliozkoak izan daitezkeen.